

# LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

## ENTZUMEN PROBA

[ A eredua ]

1. ABIZENA	NAN zk.
2. ABIZENA	AZTERKETA EGUNA
IZENA	AZTERKETA TOKIA

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
<b>ENTZUMEN PROBA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>Hiru entzungai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>Entzungaien iraupena guztira: 10 min gehienez.</li> </ul>	30-35 min	20	10

■ **Irakur itzazu** ariketa bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

## 1. ariketa: aukeratu erantzuna

**Baseri egunari buruzko informazioa entzungo duzu jarraian.**

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

### 1. Zer dio erleei buruz?

- a) Jendeak badakiela naturan duten balioa.
- b) Liztor asiaticoak desagertu egingo direla.
- c) Gaia garrantzitsua dela.

### 2. Zer azpimarratu nahi dute erleez?

- a) Hiletetan ere izandako garrantzia.
- b) Ezinbestekoak direla baserritarren bizitzan.
- c) Batez ere ematen dituzten produktuak.

### 3. Zer egingo dute Baseri Egunean?

- a) Erakusketa bat erlezaintzaz.
- b) Erakusketa bat Urretxun.
- c) Aikur museoak antolatutako erakusketa.

### 4. Zer dio inaugurazioaz?

- a) Bi aurkezle arituko direla egun horretan.
- b) Aikur museoko arduradunak aurkeztuko duela.
- c) 11:00etan egingo dela.

### 5. Norentzat da kandelen tailerra?

- a) Familientzat.
- b) Haurrentzat.
- c) Larunbatero joaten direnentzat.

### 6. Zer dio izena emateaz?

- a) Ez dela egin behar.
- b) Izenak jakiteko ondo dagoela.
- c) Kopurua jakiteko komeni dela.

### 7. Zer bisitari dute udan?

- a) Talde handiak.
- b) Neguan baino gehiago.
- c) Familiak eta bikoteak.

### 8. Zertaz da aitona-amonei lotutako ikastaroa?

- a) Herri-kirolez.
- b) Jolasez.
- c) Galletez.

**2. ariketa: lotu hitza dagokion esaldiarekin**

**MIR azterketari buruzko entzungaia entzungo duzu jarraian.**

- Entzuten hasi aurretik 1 min daukazu esaldiak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

- **Ezkerreko zutabeko hitzak ordenatuta daude, hau da, entzungaian agertuko diren ordena berean daude.**

<b>9.</b>	Azterketa	<b>A.</b>	Bere aginduak ez dira beti betetzen.
<b>10.</b>	Azterketa mota	<b>B.</b>	Azterketaren markari (notari) gehitzekoa.
<b>11.</b>	Temarioa	<b>C.</b>	Lehen eraginkorragoa zen.
<b>12.</b>	Ebola	<b>D.</b>	Horrek birpasa eten dio.
<b>13.</b>	Espedientea	<b>E.</b>	Asteburuan egingo da.
<b>14.</b>	Telefono-deia	<b>F.</b>	Oso zabala da.
<b>15.</b>	Antibiotikoa	<b>G.</b>	Galdetegi modukoa da.
<b>16.</b>	Medikua	<b>H.</b>	Galdetzeko aukera dago.

■ **Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:**

<b>Hitzak</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>
<b>Esaldiak</b>								

### 3. ariketa: aukeratu erantzuna

**Aritz Intxaustiri egindako elkarrizketa entzungo duzu jarraian.**

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

#### 17. Zer egin dute gonbidatuarekin?

- a) Mikrofono aurrean grabatu.
- b) Google-ko informazioa berarekin irakurri.
- c) Berari buruzko informazioa bilatu.

#### 18. Zer lotura du Aritzek sare sozialekin?

- a) Facebook-en izen faltsuarekin agertzen da.
- b) Twitter-en ez dute bere izena aurkitu.
- c) Whatsapp dauka, baina ez du erabiltzen.

#### 19. Zer datu du LinkedIn-en?

- a) Jende eskuzabala gustuko duela.
- b) Liderrei jarraitzea gustuko duela.
- c) Zoriontsua dela.

#### 20. Zein da pozik bizitzeko sekretua?

- a) Gizon alaiekin bidaiatzea.
- b) Leku askotako jende alaia ezagutzea.
- c) Mundua ezagutzea.

#### 21. Non bizi da orain Aritz?

- a) Euskaldunek sortutako hiri batean.
- b) Bostehun urteko etxe batean.
- c) Zelaia erdian.

#### 22. Nor bizi da bera bizi den tokian?

- a) Kolonia txiki batetik joandakoak.
- b) Enpresa munduko euskaldunak.
- c) Azkeneko uholdeak jasan dituztenak.

#### 23. Zerk ez dio nagitasunik (perezarik) ematen?

- a) Lanera joateak.
- b) Bertako hezetasunak.
- c) Lankideekin joateak.

#### 24. Zer dio Elai enpresakoei buruz?

- a) Bera bezain zoriontsuak direla.
- b) Toki askotakoak direla.
- c) Era guztietakoak daudela.

#### 25. Zer du gustuko?

- a) Latinoamerikarren gustuak.
- b) Mexikarrek bizitza ulertzeko duten modua.
- c) Mexikarrek gauzak serio hartzen dituztela.

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Entzungaia:** BASERRI EGUNA

1.	C	2.	A	3.	A	4.	B
5.	B	6.	C	7.	C	8.	B

■ **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Entzungaia:** MIR AZTERKETA

9.	E	10.	G	11.	F	12.	H
13.	B	14.	D	15.	C	16.	A

■ **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Entzungaia:** ARITZ INTXAUSTI

17.	C	18.	B	19.	C
20.	C	21.	A	22.	B
23.	A	24.	C	25.	B